



Jean ELISSALDE

---

**Atsotitz, Zuhur-hitz**

eta

**Erran-Zahar**



1936

« La Presse » egunkariaren moldiztegia

BAIONAN

TV  
115







## Atsotitz, Zuhur-hitz eta Erran-zahar

### AINTZIN-SOLAS

*Zertako liburuchka berri hau ?*

*Baitezpada holako bat behar dela iduritu zaukulakotz!...*

*Segurki, langile hainitz bada, gu baino lehen, atsotitz, zuhur-hitz eta erran zaharren ondotik ibili denik; bainan guzien artean uzta ederra bildu badute, alde batetik hainitzek ez dakite uzta hori nun kausi, eta bertetik langile horiek ez dute biltzeko guzia bildu. Primadera bakotchean lore berriak sortzen diren bezala, atsotitz eta zuhur-hitz berriak agertzen dire urthetik urtherat edo noizetik noizerat. Ez dire lehengoak baino gehiago galtzerat utzi behar. Bertzalde lehengoek berek ahotik ahorat joanez, jauntzi berri bat hartu dute. Beren jauntzi berrian agertu nahi ditugu. Zuzen da naski.*

*Beraz, Eskual-Herriko etche guzietarat doala gure liburu-chka berria. Igar dadiela chaharren atsegingarri, gazteen argitzaile. Bakotchari berea zor baitzaio haatik, batzueri eta bertzeeri erran dezotela Azcue jaun jakintsun eta Eskual-Herriko langile handienaren hiztegi paregabearen hemengo atsotitz, zuhur-hitz*

*eta erran zaharretarik frango eta frango kausi dezaketela, guk egin dugun bezala. Baina ez diogu guk hartu oraino egungo egunean Lapurdin erraten direnak baizik, han edo hemen chaharrek bederen erraten dituztela frogaturik. Badakigu barkatuko daukula.*

Jean ELISSALDE.

- 1 Abendo ederrak eta emazte ederrak ez dute etchaldea altchatzen...
- 2 Abenduko eguna, argi erretzeko eguna...
- 3 Abenduko lanhoa, euria edo hegoa...
- 4 Aberatsa gezur hutsa, beharduna amets hutsa...
- 5 Aberats daitekena urthe batez urkatu behar da urthe bat aintzinetik...
- 6 Aberats izaitea baino omen ona hobeago...
- 7 Abere gaichtoa da herra...
- 8 Abila da acheria, emazte amorosa abilago...
- 9 Adichkidea gauza ttikian behar da frogatu, handian emplegatu...
- 10 Adichkidea zaharrik, kontua berririk...
- 11 Adichkideak ez dire burhasoak...
- 12 Adichkideaz egik burhasoaz bezala, behartu gabe har ez dezakala...
- 13 Adichkide berriarentzat ez utz zaharra...
- 14 Adichkide dena ororen ez da nehoren...
- 15 Adichkide egik ez behar dukanean, baina behar dukaneko...
- 16 Adichkide gabeko bizitzea, hauzo gabeko heriotzea...
- 17 Adichkide ona behar orduetan ezagutzen da...
- 18 Aditzale onari hitz guti...
- 19 Agindua zor...
- 20 Ago, ago, ez dik Ezpeletako merkatuak bezenbat iraunen.
- 21 Ago Jainkoarekin, Jainkoa dukek hirekin...
- 22 Agorrilak ontzen, buruilak biltzen, bigek oro antolatzen...
- 23 Agorrileko euria, arnoa eta ezti...

- 24 Agure onari ez hets atherik...
- 25 Ahalke gabeak, epherrak : zer ahalkorrak ? Ogi mokor-  
rak...
- 26 Aharrausi usua, gose edo lo mezua...
- 27 Ahateari karrankaz ikasi nahi lioke...
- 28 Ahoa dabilano sabela boz...
- 29 Aho hetsitik ez da ulirik sartzen...
- 30 Ahuntza iragan den tokian hatzak ageri...
- 31 Ahuntzak eta akherrak berech...
- 32 Ahuntzaren umea, pittika...
- 33 Ahuntz duguneko zubi...
- 34 Aintzinetik thorra, gibeletik jorra...
- 35 Aise irabazia aise gastatzen...
- 36 Aita biltzaleari, seme barreari...
- 37 Aitaso kulumulu, zuretzat oilo zahar buru...
- 38 Alaba ezkont ezak nahi duenean, semea ordu denean...
- 39 Alaba sori denean ezkontzeko ez da errech beiratzeko...
- 40 Alba gorri, hego edo uri...
- 41 Alderdi ona, bakotcharena...
- 42 Aldi joana ez da itzultzen...
- 43 Aldi ona agertu deneko, aztaparka loth zakizko...
- 44 Aldiz gure jauna zaldiz...
- 45 Alferkeria nigar hainitzen ama...
- 46 Alferrak zazpi debru baditu aldean...
- 47 Alferrik egotea eta lan alferra egitea, bardin...
- 48 Alhargunaren semea baino urdea hobe...
- 49 Altzoaz eta baheaz ematea...
- 50 Ama guphidatsuak seme zahartsuak...
- 51 Amak irin balu ophil balaite...
- 52 Ametsez haintzurtzen ari denak ez du hezurrik hautsiko...
- 53 Amoratzea, gazteentzat loratzea, zaharrentzat choratzea...
- 54 Andrea, sua eta itsasoa, hirur galbide...
- 55 Andre Maria Martchoko, behia larrean aseko, kaikua  
esnez betheko.
- 56 Aphezak azken hitza bere...
- 57 Aphezak eguerdiko mahainean...
- 58 Aphezen liskarrak debruaren jaiak...

- 59 Apherila biribila, urdandegian urde hila...
- 60 Apherileko erlea enetzat, Maiatzekoa anaiarentzat...
- 61 Aphoak ez du zangorik hausten lasterka...
- 62 Arbola guziek adar eiharrak badituzte...
- 63 Ardia ahuntzari ile eske...
- 64 Ardiak beeka egonik ez du jaten belharrik...
- 65 Ardiak bi bordetan...
- 66 Ardi bezenbat antchu...
- 67 Ardi galdua atchegan ditake, aldi galdua ez...
- 68 Ardi ttikia bethi bildotch...
- 69 Arima onari uri...
- 70 Arno gozoak lau begi eta oinik ez...
- 71 Arno onak eta mirikuak zahartu behar dute...
- 72 Arotzaren etchean gerrena zurez...
- 73 Arraina eta arrotza heren egunaz karatzez kanpora dera-  
gotza...
- 74 Arraina lakhet urean, choria airean, emazte zuhurra  
etchean...
- 75 Arrainari iherika ikastea...
- 76 Arrain handiak jaten ditu ttipiak...
- 77 Arratoin biziak hilari : Hoakit, usaina baduk...
- 78 Arrats gorri, berant uri...
- 79 Arrats gorri, bihar iguzki churi...
- 80 Arrats gorri, eder aldi...
- 81 Arretchean bordari, oro elgar iduri...
- 82 Arrotzak eskua latz...
- 83 Artzainak samurtu, gasnak agertu...
- 84 Artzainaren emaztea arratsean eder...
- 85 Aseak batzuetan dakarke gosea...
- 86 Aseak gosearen berri ez daki...
- 87 Aski dakik bizitzen badakik...
- 88 Aski duenak ez du gehiagoren beharrik...
- 89 Aski ez duena, deusik ez duena...
- 90 Asko baduk asko beharko duk...
- 91 Astoak arnoa ekartzen du eta ura edaten...
- 92 Astoak bere burua lauda...
- 93 Astoak mandoari : beharri luze...

- 94 Astoak nolako, zamukak halako...  
95 Astoa uririk eman zuenak, gero erosi behar izan zuen...  
96 Astoa usinan irriz-irriz itotzen da...  
97 Asto hilari iphurditik olo...  
98 Athorra hurbil, larrua hurbilago...  
99 Atso, lotsa duna hiltzera ? Hoa atzerrirat bizitzera...  
100 Atzearen zakhua zilho...  
101 Atzerrian lurra garratz, oina ibil egik baratz...  
102 Atzerri, otserri...  
103 Atzoko hazia ez da biharko uzta...  
104 Aukeraren maukera azkenean okherra...  
105 Auko zorigaitzari ekhuru, onari aiduru...  
106 Auzitik lekora, bat athorra has, bertzea biluzgorri ardura...  
107 Azeria bere chiloan nausi...  
108 Azeria denean predikatzen ari, gogo emak hire oiloari...  
109 Azeriak artea hedatu eta bere buztana hartu...  
110 Azeri zaharrari ilea erori, bainan larrua gelditu...  
111 Azkenak oro ahantzarazten...  
112 Azken hilak zorrak paga...  
  
113 Badu ere ilea uzten, azeriak bere izatea ez du biluzten...  
114 Baginaki baginuke, baginu baginakike...  
115 Baidagik eginbidea ona dukek heriotzea...  
116 Baigorrin bachera urhez, ni harat orduko lurrez...  
117 Baiguran lanho, alokanta, etchean ago...  
118 Baionan hartze, Santizpiritetan zor, antola hor...  
119 Bakotcha beretzat, Jainkoa ororentzat...  
120 Bakotchak bere bergaz bertzeak negurtzen...  
121 Balitzeko eiherak ez du irinik ematen...  
122 Baratze eta usotegi, aberasgarri...  
123 Baratzetik asea, baratzetik gosea...  
124 Barnea harro duen alkateak aztaparretan ditu legeak...  
125 Barrika hutsak azantza handiena...  
126 Barrika tcharretik arno on guti...  
127 Basta ederragatik asto duk astoa...  
128 Bat eskuan hobe bigen mentura baino...

- 129 Batzuen gatz untzian harrak sortzen ohi dire...  
130 Begi bat aski saldunak, ehun ez sobera erostunak...  
131 Beharbada gan zena, beharbada ethorri zen...  
132 Beharbada otsoa gure labean da...  
133 Behardunaz urrikaltzea ongi, laguntzea hobeki...  
134 Behar ez duen mandoak zaldare..  
135 Beharra eragile handi...  
136 Beharrak aharra...  
137 Beharrak beharra ereiten du...  
138 Beharrak ez du legerik...  
139 Beharrak izurriaren manak ditu, askazi adichkidez gabetzen  
gaitu...  
140 Beharrak zaharra merkaturat...  
141 Beharrari ematea, ereitea...  
142 Beharrari ematen dionak Jainkoari ematen dio...  
143 Beharri batean sar eta bertzetik athera...  
144 Behatzailea maizago bere gaizkiari beha dago ezen ez  
ongiari...  
145 Beha zazu aintzinerat edo lerra zaitezke gibclerat...  
146 Beha zazu lehenik, mintza zaite azkenik...  
147 Behi ederrak esne guti...  
148 Behi tcharra bethi miga...  
149 Behorraren ostikoak ez ditu sendi garainoak...  
150 Behortchoria kantuz, haize gaichtoa bidean heldu hichtuz...  
151 Belatz duana ez utz hagati, austore jingea denagati...  
152 Beldurra bera zaldi...  
153 Beldurti dena maiz gaichto...  
154 Beldurti denaren ezpatak punta motz...  
155 Belea ikus daite, churi ez daite...  
156 Beleak sarratzera...  
157 Belhar gaichtoak zaina luze...  
158 Beltz guziak ez dire ikatzak...  
159 Bera izanagatik langile ona, Jainkoak nahi du laguntzailea  
160 Berant jina, gaizki etzina...  
161 Berant jinak mahain azpitik chichtu...  
162 Bere ahal dena ez da bertzeren...  
163 Bereak bere, bertzerenak erdizka...



- 164 Bere egitekoen egiten ez dakienak, nekhez daidizke bertze-  
renak...
- 165 Bere etchea berinez daukanak ez beza harririk aurtik ber-  
tzerenerat.
- 166 Bere izateaz kontent ez dena, zeruan goregi, lurrean apha-  
167 Bere jotzeko makhila berak eman... legi...
- 168 Bere nahiz eri denari nork bilha dezoke osagarri ?...
- 169 Bere nahizko gaitzik nihork ez du...
- 170 Berho zailari aihotz zorrotza...
- 171 Bero demo jo behar du burdinak...
- 172 Berriak oro eder...
- 173 Berri tzarra bethi aski goiz heltzen...
- 174 Bertzerena den larrutik uhal lodiak hartzen ohi...
- 175 Bertzeren buztanaz uliak khentzea...
- 176 Bertzeren diruaz duenak etchea berritzen, etche zaharra eta  
berria ditu bahitzen...
- 177 Bertzeren fartzak ikusten eta bere zorriak ez...
- 178 Bertzerentzat gaizki mintzo denak entzun detzazke bere  
ogenak...
- 179 Bethegiz zorroa lehertzera doa...
- 180 Bethi, berotzen duen su berak erretzen...
- 181 Bethi joz harriari phuska khentzen da...
- 182 Bethi ongi nahi duena maiz gaizki...
- 183 Bethi ordu duena, bethi berant heldu dena...
- 184 Bichtatik urrun, bihotzetik urrunago...
- 185 Bidaide gogaide...
- 186 Bide chuchenena da laburrena...
- 187 Bide handitik doana, segurkienik doana...
- 188 Bide hobekienik ezagutzen dena da laburrena...
- 189 Bideko chirribitari gosearen janhari...
- 190 Bihar ere argituko dik...
- 191 Biharko iguzkiak egungoa balioko...
- 192 Bihia eskas den etheko gauza guziak dire saltzeko...
- 193 Bihotzaren behargile mihia...
- 194 Bilhatzen duenak atchematen...
- 195 Bilhaunaren eskerra, pokerra...
- 196 Bi nausiren chakhurra goseak hil zuen...

- 197 Bizkarra suari, sabela mahainari, da laketgarri...  
198 Bortchaz, zer jan ez duena barurtzale...  
199 Burua guriz duenari ez dagoke izatea labekari...  
200 Buru bezenbat aburu...  
201 Buru onak liburu ona balio du...  
202 Bururik ez duenak buruko beharrik ez du...  
203 Bururik ez duenak zangoak behar...  
204 Burutik hasten da arraina usteltzen...  
205 Buztana bati khen eta bertzeari eman...  
  
206 Cambon palanga paloz...  
207 Chaharrak ez ditu bere kopetako chimurrak ikusten...  
208 Chakhur handiak sainga handia...  
209 Chakhur mainguari eta emazte minduari ez beha...  
210 Chakhurak sainga ilhargiari, ilhargiak bethi argi...  
211 Chakhurra leial azkeneraino, emaztea bertze aldiraino...  
212 Chakhurra ondotik duenari ez da jazartzen otsoa...  
213 Chakhur saingaria ez da ausikilaria...  
214 Chakhur tcharra dena kukuso...  
215 Chapelak ez du buru hutsik bethetzen...  
216 Chiminoak ez du buztana herrestan uzten...  
217 Chiminoak gora izanago eta uzkia ageriago...  
218 Chimino jauzikariena erortzen da lasterrena...  
219 Chinaurria ez da ttirittarentzat ari lanean...  
220 Chitoek amarekin ikasten dute kabazkan...  
221 Choria hil ohantzea egin dueneko...  
222 Chori airatu nahia...  
223 Choriak lumatik zen den ageri dik...  
224 Choria lumatik, idia adarretik, gizona elhetik ..  
225 Choria nik ohil, bertzeak bil...  
226 Chori bakotchari eder bere ohantzea...  
227 Choririk ez da arinago emazteen gogoia baino...  
228 Chori tcharrak kantu tcharra...  
229 Choroaren elheeri beharriak hets...  
230 Chuberotarrek zangoak arin, burua arinago...  
231 Churi guziak ez dire irinak...  
232 Dabilan diruak irabazten du, monedan galtzen ez badu...

- 233 Dagigun ongi eta ez dezagula beha nori...  
234 Dakienak daki, ez dakienak ez daki...  
235 Daukena dauke, ni segurik ez nauke...  
236 Debruak ezin egina emaztekiak egiten...  
237 Debruarekin iraulden ari denak behar du akhilua luze...  
238 Debru zaharra dantzan ikustea...  
239 Demanak bizian berea bertzer duke nigarra bethi...  
240 Demboran demborako gisa...  
241 Demborari dembora darraio...  
242 Desditchatuak ez du adichkiderik bere moltsaz bertzerik...  
243 Deus ez den lekuan, eskua garbi; den lekuan, begia argi...  
244 Deus ez duena, balu, emaile handi...  
245 Deusik ez da edertasuna, lagun ez badu ontasuna...  
246 Deusik ez den lekuan Erregek bere zuzenbidea galtzen du...  
247 Dirua baino omen ona beharrago...  
248 Dirua, muthil ona, nausi tzarra...  
249 Ditcha : bilha nezala diotza...  
250 Ditcha onak, nola baita bera itsu, darraizkonak itsutzen ditu...  
  
251 Dohain emana zerbeit hoberen eske...  
252 Domingo, egik emazte, ago lo, berak iratzar hiro...  
253 Duenak, azer bipher...  
254 Duenak duenari, mandoak osinari...  
255 Duenak duenetik, ez duenak bihotzetik...  
256 Duenak eltzeari gatz, ez duenak iphurdiari hatz...  
257 Duenak eman, ez duenak galde...  
258 Duenean bon-bon, ez duenean egon...  
259 Edale ona kapa zaharduna...  
260 Edanari emana janhari khendua...  
261 Eder, alfer. .  
262 Edozoin oilar bere aldapan...  
263 Egarrri dagonarentzat ez da pegar zikhinik...  
264 Egia guziak ez dire on errateko...  
265 Egia, latz eta garratz...  
266 Egiaren erratea, begiaren jalitzea...  
267 Egik on, ez jakinagatik non...  
268 Egina ez da egiteko.

- 269 Egin dut ahala, ez dezaket gehiago, artho sarratzerat baino dantzarat nahiago...
- 270 Egin eta egin, bainan irabaz ezin...
- 271 Egun egungo gisa, bihar biharko gisa...
- 272 Egun ona sar-ezak etchean...
- 273 Eguraldi ona, bera lanean...
- 274 Egur hezeari su handiak ere nekhez eragiten dio, eiharrari inhar batek...
- 275 Egurra pikatzen duenak lekhu gaitzean ekharri beharko du soinean...
- 276 Ehun zaldik ehun zaltoki behar...
- 277 Elgar iduriak elgarrekin...
- 278 Elhe ederra egunaren laburgarri...
- 279 Elhe errana ezin atchemana...
- 280 Elhorriak goizik mokoia zorrotz...
- 281 Elhurra bere aroan asegarri, handik kampo gosegarri...
- 281 Elhur urte, ogi urthe...
- 282 Elizatik hurbil, aldaretik urrun...
- 283 Eltzeak bethi atchikitzen berrian hartzen duen usaina...
- 284 Eltze guzietako burruntzali...
- 285 Eltze ttikiak laster gaindi...
- 286 Eltze tzarrak soinu tzarra...
- 287 Emaitzak hausten ditu haitzak...
- 288 Emak atherbe gaichtaginari, bera dukek salhatari...
- 289 Emak saretaz, bilha eztiok ahurretaz...
- 290 Emaztea hartzen duena handitarik ez daite etchean griña gabetarik...
- 291 Emazteak irri ahal duenean, nigar nahi duenean...
- 292 Emazteak itzala diruri; segi zazu, ihes doa; ihes egiozu, ondotik duzu...
- 293 Emaztearen hirugarren zangoa, nigarra, edo gezurra...
- 294 Emazte edale, etche galtzale...
- 295 Emazteen gogoia iduri hegoa...
- 296 Emazte gaichtoak, ithaitzurak eta kheak gizonak ateratzen dute etchetik...
- 297 Emazte ttikia bethi gazte...
- 298 Emazurtzari lurra ere alha...

- 299 Emok arloteari egosiki, galdetuko daik erraki...  
300 Emok emaileari, egiok egileari...  
301 Emok horari hezurra, emazteari gezurra...  
302 Entzun nahi ez duenak ezkila, soka tira ez dezala...  
303 Ergela hainitzetan zakuan sar daite, zuhurra behin baizik ez daite...  
304 Erhaztunak galdu, bainan erhiak gelditu...  
305 Erhoa etcherat hartu, etchea galdu, erhoa begiratu...  
306 Erhoak azkenean egiten duena, zuhurrak hastean...  
307 Erhoaren etcherat guziek bidea jakin...  
308 Erhoaren sinhestea, zuhur ustea...  
309 Erho bat aski harriaren putzurat igortzeko, hamar zuhur behar handik haren ateratzeko...  
310 Eritasun handiari erremedioa doblezka...  
311 Erosi bezala sal...  
312 Erosten duenak ahal ez duena, sal dezake behar duena...  
313 Erradak norekin habilan, nik erranen nor hizan...  
314 Erramuz euri, belhar eta ogietan busti...  
315 Erran zaharretan gezur guti, uzker hainitz duenak sakelan sos guti...  
316 Errechago da hartua uzteko ezen ez utzia hartzeko...  
317 Errechki egiten da gogotik egiten dena...  
318 Erregeren zahia eiherazainaren ogia baino hobea...  
319 Erreka ttipiek egiten dituzte handiak...  
320 Erroiak beleari : buru beltz...  
321 Erroma etzen egun batez egin...  
322 Errotan dembora gal, bidean laster...  
323 Errota onari bihia...  
324 Errota on da dabilana, ez geldirik dagona...  
325 Eskerdunari mukurrua izari...  
326 Esku batek garbi dio bertzea, bigek begitartea...  
327 Eskuko choria behinere ez utz airekoaren menturan...  
328 Esku orotako makhila...  
329 Eskuz eman eta zangoz ezin bil...  
330 Esposazak andrea, ez begitartea...  
331 Etcheak behar eta bideak ekhar...  
332 Etchean gatza ausarki izanagatik, etzakala bota leihotik...

- 333 Etche guzietan laratza beltz...  
334 Etche hartan no zen to...  
335 Etche hutsa, aharra hutsa...  
336 Etcheko elheak etchean...  
337 Etcheko oiloaz aski ez duen oilarrak behar du aski jan...  
338 Etcheko sua etcheko hautsaz estal...  
339 Ethorki batek hortzen orde ezpatak ditu...  
340 Eyhera berriak irina churi...  
341 Ez baduk ikusi nahi Akilimarro, etzakala bere chilotik harro...  
342 Ez da behartsua guti duena, baina hainitz nahi duena...  
343 Ez da bethi Phazko...  
344 Ez da bizi behar jateko, baizik jan bizitzeko...  
345 Ez da eman oin orori oski gorri...  
346 Ez da hamabi arrolzetarik hoberena...  
347 Ez da harri gogorrik pherekatuz leguntzen ez denik...  
348 Ez da ikhaia nun ez duen bere histiaia...  
349 Ez da zer fida zeru izartsuan ez emazte nigartsuan...  
350 Ez duenari ezin khen...  
351 Ez du izenak egiten izana...  
352 Ez du nihork zer zin egiten ari egia lakhet ez duenari...  
353 Ez du usain ona bethi usain ona duenak...  
354 Ez edan errekan ahal baduk ithurrian...  
355 Ez egin gaitzik eta ez izan beldurrik...  
356 Ez ezar ichtupa itchindien aldean... ez-eta neskatcha muthilen artean...  
357 Ez fida emazte ederrari ez mandoaren gibelaldeari...  
358 Ez fida ur eztiko arrainari...  
359 Ez gizent chakurra, ausikiko zaitu; goserik utzazu, segituko zaitzu...  
360 Ezina azkarrago da ezen ez zina... tuko zaitzu...  
361 Ezinak ez du legerik...  
362 Ezin dezakenak nahi duena egin beza ahal duena...  
363 Ezin gaitzez da on...  
364 Ez jan eta ez lan...  
365 Ezkondu aintzinean aldapa guziak zelhai...  
366 Ezkondu baino lehen ezagutzak egin...  
367 Ezkondu eta damutu...

- 368 Ezkont eguna ongi izanaren biharamuna...  
369 Ezkontzen omen zare, Philomena ? Bego, bego, afera  
lo..., Martin du izena...  
370 Ez ohi du zorri batentzat eskua golkorat ematen...  
371 Ezpatak ezpata sar-arazten du maginan...  
372 Ez ur ez arno...  
  
373 Feria, alfer askoren aitzakia...  
374 Fingaitz eginen duk, choria, gaztedanik ezpadagik kafia...  
375 Fruituak izanen dituen zuhaitzak aintzinetik behar du loratu.  
  
376 Gabearen hatsa, kiratsa...  
377 Gabearen mindegia apur, dena ere makhur...  
378 Gaichtoak on jaunen gerizan...  
379 Gaitza ongi athor, bakhan bahathor...  
380 Gaitz guziek beren gaitzagoa...  
381 Gaizki bildua ez da baliatzen...  
382 Galdezok zer nahi duen, egik nahi dukana...  
383 Gal etzak aldia ukhaiteko nahia...  
384 Ganderailu eder, sotoan arnoz leher...  
385 Ganderailu hotz, negua hotz; Ganderailu bero negua  
Phazkoz gero...  
386 Ganibet aho berak pikatzen ditu ogia eta erhia...  
387 Garizuma eta urkabea asturu gaitzentzat...  
388 Garizumaren laburraz ditu penak Phazkoz urkatu behar  
denak...  
389 Gathua eta emaztea maiz beren buruen aphaintzen...  
390 Gathua oinik busti gabe arrantzari...  
391 Gathuaren umea aztaparkari...  
392 Gathu zaharra esne gura...  
393 Gathu zaharra ohoin izanagatik ez dezakala urrun gelatik.  
394 Gatzak, urez egina delarik, ez du ura baino etsai handia-  
395 Gaua, hameka gogoeten ama... gorik. .  
396 Gauak ez du deus onik...  
397 Gaur egin dezakezuna ez utz bihar egiteko...  
398 Gaztaro alferra, zahartze landerra...  
399 Gazteak ez jakinez, zaharrak ezinez, doazi oro deseginez...

- 400 Gazteak nahi bezala, zaharrak ahal bezala...  
401 Geroa, alferraren leloa...  
402 Gero ageriko, Piarres Agerreko...  
403 Gero da gero...  
404 Gero da bihar...  
405 Gero dionak bego dio...  
406 Gero ? Hotz ez denean bero...  
407 Gezurra erran nuen mendian, ni baino lehen han zen her-  
rian...  
408 Gezurrak buztana labur...  
409 Gezurrak urhatsa luze...  
410 Gezurtia eta maingua laster atchewanak...  
411 Gezurtiak zer du merezi ? Egia erratean ez sinhetsi...  
412 Gibel egiok ekaitzari, bulhar aldi onari...  
413 Gibelego on dena bareko gaichto...  
414 Gilen bihar hilen, etzi ehortziren, etzidamu ahantziren...  
415 Giltzak gerrian, horak sutegian...  
416 Gizona gizon saskitik ere...  
417 Gizona hil eta nun da haren itzala ?  
418 Gizonak bizarra beltz, horri athea hets...  
419 Gizonak bizarra gorri, bidetik aldarra horri.  
420 Gizonak bizarra zuri, tirrit horri...  
421 Gizonak gizona nekhez ezagutzen ohi du...  
422 Gizonaren edertasuna, izpiritua : emaztearen izpiritua,  
edertasuna...  
423 Gizon bat higuin baduzu, emozu andre pollit bat; emazte  
higuin duzunari, gizon eder bat...  
424 Gizon bizar gabetik eta emazte bizardunetik ihes egik nola  
kotsutik...  
425 Gizon erhi bera, edo ergela edo alferra...  
426 Gizonik prestuenak badu ile ondo bat beltza...  
427 Gizon nekatua gogo huts...  
428 Gizon ffiki, harrabots handi...  
429 Gizon tzarra goizean uzten duenak arratsean atzemanen du.  
430 Gogoz gaztelu...  
431 Gogozko tokian maldarik ez...  
432 Goiz gorriak ardura euria...



- 433 Goiz gorri, arrats ithurri...  
434 Goizean goiz jeikitzen denak arratseko egin dezake zerbeit.  
435 Goiz jeikia goiz gose, berandu jeikia loz ase...  
436 Goldearen amoreagatik pot nabarrari...  
437 Goroztian gorozti, Donostian Donosti...  
438 Gorphutza elizari hurbilago eta ezkila saminago...  
439 Gosea bera jaki...  
440 Gose ez denean janhari, ateri denean estalki...  
441 Guazen bertze herrira han ere chakurrak badira...  
442 Guk euri badugu, izanen duzue ihintz...  
443 Guk oilo duguneko ortzirale...  
444 Gure gathuak buztana luze, bera bezala bertzeak uste...  
445 Gure Maria irule gaichto, haren athorak zilho asko...  
446 Gure Mariak ohiko hariak...  
447 Gure oiloak kantatzen du eta oilarra ichiltzen da...  
448 Gure sabelak gure jabeak...  
449 Guti edatea eta guti sinhestea da zuhurraren egitea...  
450 Gutienik ustean heriotzea athean...  
451 Guti hiltzen du goseak, hainitz aldiz aseak...  
452 Guti jatetik eta guti mintzatzetik ez da heldu gaitzik...  
453 Gutiz ez utz...  
454 Guzien gogorat egitea ez da errech...  
  
455 Habil izabaren etchera, bainan ez sobera...  
456 Haginean min duenak mihia harat...  
457 Hainitz daki on eta gaitzen berri inguratu dituenak asko  
herri...  
458 Haitzak azala ametzak bezala, bainan gizon zaharra ezin  
gaztea bezala...  
459 Haitzak hainitz adar ekhartzen du...  
460 Haitz bakharra eta alaba bakharra, nausi eta amaren  
nigarra ..  
461 Haitz eihartuan errech da abarren egitea...  
462 Haizea norat, kapa harat...  
463 Haizearen ondotik euria...  
464 Haizez izorra putzez erdi...  
465 Hala ez balinbada halatsu...

- 466 Hamar adichkide, bederatzi adar ustel...  
467 Handiak handizki...  
468 Handiak nahi duen bezala, ttikiak ahal duen bezala...  
469 Handien hora ona otsoen...  
470 Handurreria ez bada Tusuria da hura iduria...  
471 Haro gose, loz ase...  
472 Harria igor eta eskua gorde...  
473 Harri batez bi chori hil...  
474 Harri erabiliak ez du biltzen goroldiorik...  
475 Hartzaren umeak bethi zerbeiten eskasa...  
476 Hartzen duena zorduntzen da...  
477 Hasia jada erdi egina da...  
478 Haurrak athean erasi sukaldean zuena ikasi...  
479 Haurrak hazi, nekheak hasi...  
480 Haurrak nigar egin nahi duenean aitari bizarra tira...  
481 Haurra zotza baino hobe...  
482 Hurrek haur lan...  
483 Hurrekin dena etziten ez da bethi athorra garbirik jekitzen...  
484 Haurride bigen artean ongi dago zedarria...  
485 Hauzoko ogia baino etcheke arthoa hobe da...  
486 Hauzo ona adichkide ona...  
487 Hauzo ona duenak goiz ona...  
488 Hauzilaria beharraren eskutaria...  
489 Hazi gaichtoa bera sortzen da...  
490 Hazi gaichtotik ez da khuia onik...  
491 Hazileko ortzia neguko iguzkia...  
492 Hazitik bihia, zotzetik ziria...  
493 Haz nezak egungo haragiaz, atzoko ogiaz, jazko arnoaz, eta miriku guziak debruetarat bihoaz...  
494 Hegalak luze ditu urtheak...  
495 Hegoak ardura chahakoa berekin...  
496 Heltzaur duenak jateko aurki diro harri hausteko...  
497 Herioak ez du zuhurra atchematen...  
498 Herrialde guzietan toki onak badira, baina bihotzak dio .  
    Zoaz Eskual-Herrira...  
499 Herri tzarrena, adichkiderik ez dena...

- 500 Hezurra emok atzeari haragi orde...
- 501 Hi arraza handiko, ni seme Jauregiko, egur hori nork dauku hautsiko ?
- 502 Hi handi, ni handi, nork erranen dik astoari : Arri ?...
- 503 Hik hari, nik hiri, ez dezagun egin gaizkirik nihori...
- 504 Hik maka, nik saka...
- 505 Hilak begia beltz...
- 506 Hilak gibelaldea hotz...
- 507 Hilak lasterka doazi...
- 508 Hila lurpera, biziak asera...
- 509 Hileko erdia, hileko eria...
- 510 Hil eta salda beharrik ez...
- 511 Hil gabe biluzten dena, gosez eta hotzez hiltzen dena...
- 512 Hilik baino hobe bizi...
- 513 Hil nahi dugun chakhurra bethi kukusoz bethea...
- 514 Hiltzea errech da, bizitzeak ematen du lan...
- 515 Hire buruari behinere ez barka, bertzeeri bethi...
- 516 Hire etsaiaren emaztearekin, ahal baduk, ago adichkide...
- 517 Hirur beharritan iragan hitz ichila lasterka dabila...
- 518 Hirur gauzatarik behar du begiratu zuhur denak : emazteari bere sekretuen fidatzetik, leihorrez doakelarik itsasoz abiatzetik, egun osoa alfer egoitetik...
- 519 Hirur gutik eta hirur hainitzek galtzen dute gizona : guti ukhan eta hainitz gastatzeak, guti jakin eta hainitz mintzatzeak, guti izan eta hainitz izan usteak...
- 520 Hitza da gizona..
- 521 Hitza hitz...
- 522 Hitzak eta lumak erematen ditu haizeak...
- 523 Hitzemana zor...
- 524 Hitz ez tik mihia zaurtzen ez dik...
- 525 Hitz luzeek eguna laburtzen...
- 526 Hitz untzi, huts untzi...
- 527 Hobe maiz onaren etsai...
- 528 Hobe da adichkide on bat ezen ez ahaide ehunbat...
- 529 Hobe da ichilik egoitea ezen ez gaizki mintzatzea...
- 530 Hobe da guti ukhan eta kito, ezen ez hainitz eta zorrez itho...

- 531 Hobe da hartzale baino emaile...  
532 Hobe da zahi hutsa ezen ez aho hutsa...  
533 Hobe da zuhur baten ustea ezen ez ehun erhoren sinhestea.  
534 Hobe dire lanak ezen ez famak...  
535 Hobeki ez da bethi hobeki...  
536 Hogoï urthetan deus ez dena, hogoïta hamarretan deus ez dakiena, da jagoïtik eztatena eta ez dakikena...  
537 Hora ez da ukaldika lausengatzen...  
538 Horak zahia ez berak jan, ez oiloeri utzi...  
539 Horak nun mina, han mihia...  
540 Horaren umea chakhur...  
541 Horik ez den tokian acheria nausi...  
542 Huntzak biligarroari : buru handi !...  
543 Huntzari ez beha lumara...  
544 Hurriki hurriki egiten da biziki.
- 545 Ichil ago ematean, mintza hartzean...  
546 Ichilik dagoenak ez dio gezurrik...  
547 Ichilik egonak nihor ez du galtzen, erasteak hainitz...  
548 Ifernua chede onez bethea da...  
549 Iguzkia eta euria, Martchoaren aldia...  
550 Iguzkiak guzientzat argitzen du...  
551 Iguzki churi labearen gainean...  
552 Iguzki gabeko larunbatik ez da...  
553 Ihardeste hoberena, egitea manatua dena...  
554 Ikasten ez duenak etchean ez daki kampoan...  
555 Ikusten ez duen begiak ez du nigarrik egiten...  
556 Ilez sainda ditake azeri zaharra, larruz ez...  
557 Ilhumpeak zaldiz, argiak oinez...  
558 Ilhumpeko lana egun argiz ageri da...  
559 Indarka ez da lan onik...  
560 Irinetan erho, zahietan zuhur...  
561 Iri eta farra astoarekin ezkondu beharra...  
562 Iri hainitzek, nigar guziek...  
563 Irriz eta nigarrez, bihar ezkondu beharrez...  
564 Irunez oihaldun da gure andrea, ez alfer egonez...  
565 Itho nahi duenari eskua hedatzea erhokeria da...

- 566 Ithurritik ura eta alferkeriatik gaichtakeria...  
567 Itsasoak adarrik ez...  
568 Itsuak ikusgura, mainguak ibilgura...  
569 Itsuak nahi luke bertzeak ere itsu izan ditena...  
570 Itsu baino hobe okher...  
571 Itsuekin okhera jaun handi...  
572 Itzalik gabeko iguzkirik ez da...  
573 Izana, enea enetzat, zurea bigentzat...  
574 Izarrer beha zoana zilhorat erori zen...  
575 Izena handi, izana ttiki...  
576 Izotzak eta euriak eskurat gariak...  
577 Izotz zuria euriaren mandataria...  
578 Iztupa eta iletia ez eman elkarren aldean...  
  
579 Jainkoak maite bazaitu, andrea hilen zaitzu...  
580 Jainkoa luzakor, bainean ez ahanzkor...  
581 Jainkotiarrari Biriatu ala Donostia bardin laketgia...  
582 Jakiteko hartzen ikasazu ematen...  
583 Janaren uzteko behar da izan zeruko...  
584 Jan eta hotz, mirikua ez da botz...  
585 Jan nahi baduk, lan egin beharko duk...  
586 Jarraikiz azeri zaharrak atzematen du oiloa...  
587 Jatxu eta Haltsu, bigak igualtsu...  
588 Jaunetan zoin da latzena ? Ez deusetik jauntzerat heldu dena...  
589 Jauntziak ez diro eder chiminoa, bada ere setazkoa...  
590 Jauregik berak ardiesten ez duena, gutiasten...  
591 Jauregik jaka bethe chingolaz, barnea ichtupa eta arkolaz.  
592 Jauregiko emaitzak eskea ondolik...  
593 Jazko astoak aurthen orroa...  
594 Jazko ebaslea aurthengo urkatzailea...  
595 Jazko ohantzean aurthen choririk ez...  
596 Jitoen artean ez sar makhil hautsiarekin...  
597 Joanetak zaia oihal mehez, salda ehez...  
598 Jokarien lasterra gora-behera : goratzea, hegi erdiraino :  
beheratzea, ondoraino...  
599 Jokoa ez da errenta...

- 600 Jokoak adarrak makhur...  
601 Joko hoberena, gutienik dirauena...  
602 Jondoni Joane bero, lastoz eta belharrez bazterrak oro...  
603 Jondoni Laurendi, berhoari itchindi...  
604 Jondoni Laurendi, esku batean euri, bertzean itchindi...  
605 Jondoni Laurendiko euriz laboraria egarriz...  
606 Jondoni Marte eder, ogia bota lurrer...  
607 Jorraia haintzuraren bardin nahi...  
  
608 Kafea berorik, jarririk eta urririk...  
609 Kampoan uso, etchean bele...  
610 Kampoko ogi churia baino etcheko ogi beltza hobe...  
611 Kaparrak itzala begitsu, bera iduritsu...  
612 Kastaz du erbiak izikor izatea...  
613 Kokoratz hik egin eta nik ebats...  
614 Kozina gizenegiak jalea ahultzen du eta etchea aurti-  
kitzen...  
615 Kukuak kantatzean euri eta iguzki...  
616 Kuku, kuku, emazteek mila matrikulu...  
617 Kukusoek ez dirote lotsa chakhurra maite duena...  
  
618 Lagunaren gaitza ez ager...  
619 Lagun elhekari bideko zamari...  
620 Lagun-ezak hire burua, lagun dakikan zerua...  
621 Laharraren umea, martzuka...  
622 Lan aintzinetik pagatua ihesi doa...  
623 Lan gaichtoa, bortchazkoa...  
624 Langileak jateko prest ditu haginak...  
625 Lan gutiren adichkideak arrakasta guti...  
626 Lan lasterra lan alferra...  
627 Lan onak uzta ona...  
628 Laratzak badaki etcheko berri...  
629 Laster agintzeak dakarke laster urrikitzea...  
630 Laster jina laster joana...  
631 Lasterregi dabilana bidez makhurtzen da...  
632 Lasterrik egin gabe behar dik atchewan...  
633 Lastoa sal eta astoa eros...

- 634 Lasto su, laster su...  
635 Latsa harria ikusi eta churitzerat...  
636 Lausengaria traidorearen lehen askazia...  
637 Lehen ardia doan bidetik bertzeak...  
638 Lehenean barka, bigarrenean marka, hirugarrenean urka...  
639 Lehen emaztea itzuzki, bigarrena andre handi...  
640 Lehen hala, orai hola, gero Jainkoak daki nola...  
641 Lehia, gauza berantgarri...  
642 Lekhu gazteeri...  
643 Lekhutik higitu nahi ez duenak bidean otsoak badirela dio...  
644 Lekhu urruneko berria lehen jina da egia...  
645 Letra gabearen aisia, gizon biziaren hobia...  
646 Lo egiten duenak jaten du...  
647 Lo egonez ez da elhorririk sartzen zangoan...  
648 Lotsagabeak herria bere...  
649 Lotsagabetu nintzen, ogiz ase nintzen...  
650 Lotsa nintzen esnea othe zen ichuri : aita hil da, eskerrak  
Jainkoari...  
651 Lur gurian zilhoa errech...  
652 Lurrak hazi eta lurrak jan behar...  
  
653 Mahainari doakon dafaila...  
654 Mahats arno doiak flakoak azkartzen ditu, bainan soberak  
azkarrak flakutzen...  
655 Maiatza urite, errearoa erhauste, urthea izaiteko ogite...  
656 Maiatza uritsu, ekhaina erhautsu, orduan da laboraria  
urguilutsu...  
657 Maiatzean ttipi baniz edo handi baniz, burutu behar niz...  
658 Maiatz hotz, urthea botz...  
659 Maiatz ilhuna eta errearo argia, urthe guziko ogia...  
660 Maingu den azeriak ez du erakusten...  
661 Maitatzeak maitatze du hartze...  
662 Maita zazu trunkoa, idurituko zautzu Jainkoa...  
663 Maite dena ez da nekhe...  
664 Maiz ederki nahi dena maiz itsuski...  
665 Makhur izanagatik ihitaia, zuzen ephaiten du lastogaia...

- 666 Mandatari zinak osagarria dakhar...
- 667 Mandoak umerik ez, umearen minik ez...
- 668 Mandoa, nor duk aita ? Mendiko behorrik ederrena ama...
- 669 Mando hilari ostiko...
- 670 Mando merkea, hiretzat duk nekhea...
- 671 Manechetik ez da jiten ez haize hounik ez jente hounik...  
(Chuberoko-errana).
- 672 Manez tzar bezenbat Mari tzar bada ferietan...
- 673 Mariki, eman eta urriki, eman gabe atchiki...
- 674 Mariñel emaztea goizean senhardun, arratsean alhargun...
- 675 Martchoak buztanaz, apirilak bulharraz, Sanmark, artho-  
arthorik baduk emak...
- 676 Martchoan airea gorri, goizeko elhur berri...
- 677 Martchoan haize, sagardian lore...
- 678 Martchoan lantcherra moraino, apirilean elhurra haraino...
- 679 Martcho chartcho, apiril biribil...
- 680 Martcho idor eta bero, arnoz leher gero...
- 681 Martcho lore, urde lore; apiril lore, are hobe; maiatz lore,  
gabea baino hobe...
- 682 Martilu zilharrezkoak hausten ditu athe burdinezkoak...
- 683 Mendiak mendiaren beharrik ez, gizonak gizonarena ba...
- 684 Menturak mentura tcharra...
- 685 Meza luzagarri alleluia...
- 686 Mihia bihotzaren mandataria...
- 687 Mihiak ez du hezurrik hausten, bainan ba hautsarazten...
- 688 Mihiari zazpi itzuli eginarazten ditu zuhurrak mintzatu  
aintzinean...
- 689 Mihi duena bethi heltzen da Pariserat...
- 690 Mihi gezurtiaz diru biltzen ari dena, edo erhoa edo ergela.
- 691 Mila urtheren buruan ura bere bidean...
- 692 Minean unkitua denak atch egiten...
- 693 Mintzo denak ereiten, ichil dagonak biltzen...
- 694 Mintzo eztiak bihotz gogorra ema diro...
- 695 Mirikuek garbitzen dute gorphutza, aphezek arima, lege-  
gizonek moltsa...
- 696 Mizpira, ahora gabe uzkira...
- 697 Mozkortzaleen haurrek iguzkia janhari...



- 698 Mundu hunek diruri itsasoa, igerika ez dakiena ithotzera  
doa...
- 699 Muthil onak buruan zauria...
- 700 Muthurrez maite, errapez gaitzets...
- 701 Nagia bethi lantsu...
- 702 Nahi baduk bizi minik gabe, ez jan gose izan gabe...
- 703 Nahi duena erraten duenak nahi ez duena entzun dezake...
- 704 Nahi duk pipatu, haurra ? Ikasak eztulka...
- 705 Nahi ez duenak ilki dadin kherik ez dagiela surik...
- 706 Nahi gabeko ezkontzea, nekhe eta kaltea...
- 707 Nahi izatea ez da bethi ahal izatea...
- 708 Nahikariak edertzen ditu gauza guziak...
- 709 Nahikide ez da adichkide...
- 710 Nahi nuke ikusi, dio itsuak...
- 711 Nahiz zahar eta jakintsu, zuhurrak hartzen du abisu...
- 712 Nausiaren begia argi...
- 713 Nausiaren begiak gizontzen ditu idiak...
- 714 Nausi berri, lege berri...
- 715 Nausi erhoa baino gogorra hobe...
- 716 Nehork bi nausi ezin zerbitza dezazke...
- 717 Nekhe gaberik ez da heltzerik...
- 718 Nekhez denean egina atsegabetzen da atsegina...
- 719 Nere etheko khea hauzoko sua baino gochoago...
- 720 Neskak hirur hitz egunean, biga bere kaltean...
- 721 Neskatcha maiz ederra jaietan kakatsu...
- 722 Neskatoke hitzemanak hainitz lamburkari....
- 723 Nigarrik gabe ez da bizitzerik...
- 724 Nihaur nintzan gelari, galtzetan zilhoak ageri...
- 725 Nihork ez du hil nahi, zahartu guziek...
- 726 Nihork ezin eman ez duenetik...
- 727 Nihundik ez da astorik ethortzen lau beharriekin...
- 728 Nik hora mana, horak bere buztana...
- 729 Noizpeit hobe sekulan baino ..
- 730 Nola aphezaren kantatzea hala berettarraren ihardestea...
- 731 Nola jin hala joan...
- 732 Nolako ama, halako alaba...

- 733 Nolako bizitzea, halako heriotzea...  
734 Nolako nausi, halako zerbitzari...  
735 Nola soinu, hala dantza...  
736 Norat iguzki, harat buruzki...  
737 Nor bere buruki, egin ondoan urriki...  
738 Nork bere gogorat egiten du etchea...  
739 Nork bere molde...  
740 Nork bere opilari ikatza...  
741 Nork bere sorhorat ura...  
742 Nun nere chokho, han nere gocho...  
743 Nun fida eta han gal...  
744 Nun gogoa, gazteak han du zangoa...  
745 Nun nahi antzara bere mokoaz alha duk...  
746 Nun salda han zopa...  
  
747 Odolak surik gabe irakitzen du...  
748 Ogen bat paira, bertzea gaira...  
749 Ogiak ez du lagunik nahi ez landan, ez askan, ez labean.  
750 Ogi bezenbat gasna...  
751 Ogi erre berria etche galgarria...  
752 Ogi gogorrari hagin zorrotza...  
753 Ogi hasia jankiden, lan hasia inkiden...  
754 Ogi hasiari ganibeta aiher...  
755 Ogi metaren gaineko choria...  
756 Ogi orde dabila Maiatza su eske...  
757 Ohakoan ikasia ezin ahantzia...  
758 Ohantzea egin dueneko choria hil...  
759 Ohapean nago gorderik, enirozu ediren...  
760 Ohean kaka egin duenak burua gorenik...  
761 Ohoinak hasarretu, ardiaren ebaslea agertu...  
762 Ohoin handiak erregebidez, ttipiak chendraz...  
763 Ohoin handiak urkharazten ditu ttikiak...  
764 Ohoreak badoazi khea bezala...  
765 Oihal ona kutchan dagoelarik sal daite...  
766 Oihal tcharra merke delarik khario...  
767 Oihanean haitzik makurrenak chuchenena dela uste...  
768 Oihaneko haziak badaki oihaneko berri...

- 769 Oilar bat aski oilo hamarbaten, hamar gizon ez emazte baten...
- 770 Oiloa eta emaztea galtzen dire, etchetik urruntzen badire.
- 771 Oiloa eta emaztea galtzen ditu sobera ibiltzeak...
- 772 Oiloa zorriketan, atera zaite zapatetan...
- 773 Oiloari olhoa, astoari lastoa...
- 774 Oiloa utzirik gaphoina nahi...
- 775 Oilo gosea kantari, neska gosea dantzari...
- 776 Oilo ibildari acheriaren janhari...
- 777 Oilotegiko haga bezen garbia...
- 778 Oilo zaharrak salda ona...
- 779 Oinezkoa ez nahi, zaldizkoa ez ethorri...
- 780 Okher edo maingu, norbeit baginu...
- 781 Okherrak itsua urrikari...
- 782 Okhiloa hasten bada kantuz, euri haizea laster hasiko da hichtuz...
- 783 Okhin berriak bahia churi...
- 784 Oiloa eta egia doatza gainera...
- 785 Oltzak begiak, sasiak beharriak...
- 786 Ona bere gaitzarekin...
- 787 Onak onari goraintzi...
- 788 Onak on direlarik, hobeak hobe...
- 789 Onegi dena beretzat ez da aski bertzentzat...
- 790 Ongi eginari ondotik illeti...
- 791 Ongi eginen pagoa, athe ondoan paloa...
- 792 Ongi egiok beharri eta Jainkoak emanen daik sari...
- 793 Orai debruak joan du gure mandoa!...
- 794 Ordua doanean doa mundua...
- 795 Orduari loth hadi aztaparka...
- 796 Oreina larrean, bertza laratzean...
- 797 Oren batez ezin egina bigez egiten da...
- 798 Orga tcharrago, karranka handiago...
- 799 Orhiko choriak Orhin du laketzen...
- 800 Orhin ekhia bero...
- 801 Oro bertzeentzat kontseilari on...
- 802 Oro gal jokatzeari, arbalda mando hilarekin ehorztea...
- 803 Orok diotena, edo da edo izanen da...

- 804 Ororen nahiz oro gal...  
805 Orotako gaichtoen ozpina arno gaichotik egina...  
806 Orotan fida hadi, orotarik begira hadi...  
807 Orratzak baino luzeago behar du hariak...  
808 Orratzak mundu guzia beztitzen, bera biluzik egoiten...  
809 Orratzaren ohoina azotaturik, urhe multzoarena alkate-  
turik.  
810 Ortzegunaren ondotik ortziralea...  
811 Ortzirale gaberik ez da asterik...  
812 Osasuna, mundu huntako ontasuna...  
813 Otharre bat egin duenak egin detzazke mila...  
814 Othoizten ez dakiena Jainkoari doala itsasoari...  
815 Otsailean elhurra zurez, Martchoan elhurra urez...  
816 Otsail eztegi, primadera chirtchilegi...  
817 Otsoa artzain...  
818 Otsoa bethi bildotsetarat lehenik...  
819 Otsoa ez bada, hartza...  
820 Otsoa ez da alha otso haragitik, bainan bertze guzietarik.  
821 Otsoak hartzari min legio...  
822 Otsoak hirur zango libro nahiago, artean lau baino...  
823 Otsoak jan dezake ardi kondatuatarik...  
824 Otsoak mandataririk ez du bera baino hoberik...  
825 Otsoak otsoari ausikirik ez...  
826 Otsoak zer baitetsa, otsemak donetsa...  
827 Otsoa lagun dukanean, ahal baduk, atchikak hora sahe-  
tsean...  
828 Otsoa nun aipha, han gerta...  
829 Otsoaren ahotik ichter bat ere on...  
830 Otsoa senhar duenak oihanerat beha...  
831 Otso gosea ibilkari...  
832 Otso goseak ez du bakerik...  
833 Otso gosea pausu gaitz...  
834 Otso hilak ez du ausikitzen...  
835 Otso larrurik jauntz ez dezakala entzun nahi ez baduk  
otsoa haizela...  
836 Pagatzaile gaichtoaganik lastoa pagamenduen aldera...

- 837 Phago erorira egurkari guziak laster ari dira...  
838 Phikaren umea, ñabar...  
839 Phikaren umea phika...  
840 Piarresi zor duenak eta Frantsesi pagatzen, berritz paga-  
841 Pilota punparat ethorriko da... tzen du...  
842 Pintar batetarik su handia...  
843 Pipa pitz eta erran bi hitz...  
844 Pitar ukhanak gustu hobea ezen ez arno erosiak...  
845 Portaletarik ageri hiria...  
846 Potzoak ez du nahi bertzek emanaz ogirik...  
847 Prestatzen ez hadila ari, gero buru-has galdetu behar dio-  
kanari...  
848 P... semea on bada, menturaz; gaichto bada, sorkuraz...  
849 Putza bezala hantzea...  
850 Putza izan eta uzkerria uste ..  
  
851 Sabelak egitean gur-gur, bezperako afariak agur...  
852 Sabel betheak ez du beharrik...  
853 Sabeldurak gaitz ditu urak...  
854 Sabel gose denak beharrik ez...  
855 Saguak janen duena gathuak jan dezala...  
856 Sagu ergela gathuaren meneko...  
857 Saiheskia lauda ezak, ordokia hire ezak...  
858 Sainga degidala, bainan ausik enezala...  
859 Salda onak behar ditu hu, mu, kukuruku...  
860 Saltsa nahasiago, usaina handiago...  
861 San Medarrek euri, berrogoi egunez busti...  
862 San Simun eta san Juda, negua helda da...  
863 Santa Luzia eguna, argia deneko ilhuna...  
864 San Tomasetako peria, txoritxo eta ogia... (*Donostiako  
errana*).  
865 Saretarik ez du ihes egiten usoak...  
866 Sasitik atera eta berhoan sar...  
867 Segurak ez du parenik...  
868 Semeak irabazia, aitak chahu...  
869 Semeder eguneko euria, berrogoi eguneko euria...  
870 Senhar duenak jaun badu...

- 871 Senda, senda, miriku, trapu tzarra ziriku...  
872 Seroretara zautan gogoa, ezteietara haizeak naroa...  
873 Sobera baino hobe aski...  
874 Sobera hartzen duenak gaizki tinkatzen du...  
875 Sobera jakintsu izanez, azeria gabetu buztanez...  
876 Sobera on dena bertzendako ez da aski beretako...  
877 So ez dagoena geroari deiez dauko goseari...  
878 Soinulariaren etchean oro dantzari...  
879 Sortzen da hiltzeko, hiltzen da phizteko...  
880 Sortzetik du azeriak maltzurkeria...  
881 Sudurra pika eta odola ahorat...  
882 Sudurra pikatzen denean, muthurra odoltsu...  
883 Su gabeko etchea, gorphutz odolgabea...  
884 Sugea hilagatik, sugekumeak bizi...  
885 Surik ez bada, ez da kherik...  
  
886 Tantiruri, orok elgar iduri...  
887 Tcharrenak amor...  
888 Tontoak zer daki egiten ? Ongi eginaren desegiten...  
889 Tresnak jabea iduri...  
890 Trilili eta tralala, kantu guzien ama da...  
891 Trostan doan zaldia ez da errech ezagutzen...  
892 Tupina emendatuz gaichtotzen da...  
893 Tzarrer emanikakoa bethi da urrikitzekoa...  
  
894 Udan eta neguan euri egiten du Jainkoak nahi duenean...  
895 Ugazama, ifernuko debruaren zama...  
896 Uhaitza, atzo bazoan eta egun badoa...  
897 Uhalde, nola haiz aberastu kolpe batez ? Traidore izatez.  
898 Unidea maite duen soldadoa, haurrari musuka...  
899 Untzian hainitz nausi, arrain guti...  
900 Ura ez da solasgura...  
901 Urak dakarrena urak derama...  
902 Urak eta egiak bide behar...  
903 Urak ez deramana, uharrak...  
904 Ur beroak erre duen potzoa epelaren beldur...  
905 Ur chirripak oro ur handirat...

- 906 Ur chortak ardura arduratuz harria chila dirozu...  
907 Urdaia eta arnoa urthekoak, adichkidea urthetakoa...  
908 Urdea hil eta kurrinka bizi...  
909 Urde goseak ezkurrerat amets...  
910 Urde mainhatuak laguna nahi...  
911 Urean itho eta suan erre, bardintsu...  
912 Uргуилutsua beteritsu bertzen alderat, itsu bererat...  
913 Ur guti, indar guti; ur hainitz, indarrik baterez...  
914 Ur guziak eiherarat...  
915 Ur handietan arrain handiak...  
916 Urhea bethi bere ondora...  
917 Urhea, emaztea eta oihala egun argiz har detzakala...  
918 Urhe gakoaz athe guziak idekiz doaz...  
919 Urkatuaren etchean ez aipa sokarik...  
920 Urkatu baten hobian chun gaichtagin ehorzten dire...  
921 Urrunago eta berriago handiago...  
922 Urruneko eltzaurrak hamalau, etcherat orduko etziren lau.  
923 Urruneko neskak anderauren hots...  
924 Urrun joanen da emeki doana...  
925 Urtharrila idorte, laboraria dirute...  
926 Urtharril hotza neguaren bihotza...  
927 Urthatsez elhur askoz lili Phazkoz...  
928 Urthatsez haize, urthearen erdia haize...  
929 Urthaur dira amodioz ezkontzea eta urrikitzea...  
930 Urthean behin da Phazko...  
931 Urthe gaitza aldiraino, izen gaitza hobiraino...  
932 Urthe uritsu, urthe ogitsu...  
933 Usoak joan eta sareak heda...  
934 Ustea erdia ustela...  
935 Ustea ez da jakitea...  
936 Uste ez den lekhuari dago erbia lo...  
937 Usu ithurrira doan pagarra hausten da edo matzertzen...  
938 Utzak ona hobeagatik...  
939 Uzkerak solasa eta putzak gerla...  
940 Uztaren arau zuhurraren jatea...  
941 Uzkie lastoz duena suaren beldur...  
942 Uzkinacho urthe, negu basa urthe...

- 943 Zahar hitzak, zuhur hitzak...
- 944 Zaharo zeno zeren ez den chuchendu da zuhaitza makhur-  
ra gertatu...
- 945 Zaharrago zoroago...
- 946 Zaharrak liburu, hek errana egizu...
- 947 Zaharrentzat herriz aldaratzea hiltzea...
- 948 Zahartzeak deus onik ez du...
- 949 Zahia irinaren eske...
- 950 Zakua ba eta lokarririk ez...
- 951 Zakua phedazuaren alde...
- 952 Zakutik bihia gal edo zorrotik irina, galtze bardina...
- 953 Zalditik astorat, astotik lurrerat...
- 954 Zaldiz iragan ez ditaken bidetik, oinez...
- 955 Zaldua, egik semea duke, ezagut ez huke...
- 956 Zamari gazteari zaldun zaharra...
- 957 Zamarrari ez erran : hoa chuchen...
- 958 Zangoak behar ditu chuchenak makhurren eskarniatzen  
hasiko denak...
- 959 Zangoeri eman izariko zapatak...
- 960 Zapata churiak paperez, euria denean baterez...
- 961 Zapatainak zapata zaharrak...
- 962 Zaphar edozoinek bere itzala...
- 963 Zaphar zailari aihotz zorrotza...
- 964 Zarean ez da urik hartzen...
- 965 Zaude ichilik, ez duzu entzunen gaizkirik...
- 966 Zauriaren gaineko pikoa...
- 967 Zekena bethi on gose...
- 968 Zela nahi ez duenari arbalda...
- 969 Zelatan dagonak bere gaizkia lasterrago entzunen du ezen  
ez ongia...
- 970 Zenbat andre on, hainbertze etche on...
- 971 Zenbeitek beren elhe ederrez acheria chilotik jaliaraz  
lezakete...
- 972 Zenbeiten hitza ala ahuntzaren gauerdiko eztula bardin  
dire...
- 973 Zer da berri ? Zaharrak berri, gazteen errabiagarri...



- 974 Zer da edertasuna ? Iraute gabeko ontasuna...  
975 Zer diozu, Mikhele ? Bertzek diotena nik ere...  
976 Zer ikusi, hura ikasi...  
977 Zikoitzaren sakelak bi zilo...  
978 Zilo berriak ez du zaharra tapatzen...  
979 Zoazi errotarat, irina lothuko zaitzu...  
980 Zoin da orotako aberatsena ? Bere doiaz gogobetetzen dena...  
981 Zorionari idekok athea, zorigaitzari agokok beha...  
982 Zoroa da bere kaltetan argi bilha dabilana gauza ilhuetan...  
983 Zoroak oro erranik ere gelditzen da zer erran...  
984 Zor berria baino hartzeko zaharra hobe...  
985 Zor zaharra, min berria...  
986 Zor zaharra, zor tzarra...  
987 Zozoak beleari : buru beltz...  
988 Zozoak ez du bethi sasi berean kantatzen...  
989 Zuhaitz onak itzal ona...  
990 Zuhaitz ondo bat ateratzean, landa zaitzik biga aldean ..  
991 Zuharrak eder du adarra, bainan fruiturik ez dakarra...  
992 Zuhur arditaren, erho dukataren...  
993 Zuhurrak elhe guti...  
994 Zuhurrak hitz erdiz aditzen du...  
995 Zuhurrak luzez pentsatzen du eta laster obratzen...  
996 Zuhurrek bil. erhoek jan...  
997 Zura berago, harra barnago...  
998 Zurda tinkatuz doa trenkatuz...  
999 Zuretik ezpala...  
1000 Zuretzat latin, neretzat jakin...  
1001 Zurginaren etchea zotzez, zotzez ere motzez...  
1002 Zuri zurea, neri nerea, horra zuzenbidea...  
1003 Zuzen gabeak orroa handi...  
  
1004 Ago, bego, gero, anaiak dire...  
1005 Behiak on du larre, aldean balinbadu jabe...  
1006 Dagoena buru handi, dabilana sabel handi...  
1007 Egunak usu, apajruak usuago...

- 1008 Ez da muthiko hori zazpi etchetako herrian galduko...  
1009 Ez dik artho chehea haizeak crematen...  
1010 Gerla urthe, gezur urthe...  
1011 Gizon buru apala hi ganik urrun doala...  
1011<sup>bis</sup> Goiz gorri, uritsu; arrats gorri, haizetsu...  
1012 Hainitz hitzematzen dautzunari guti fida zaite...  
1013 Harriaz burua jo edo buruaz harria, batetarat doa...  
1014 Iduriaren kontra zapoa saltari...  
1015 Ikusi nuenean Joakinen muthurra, iduritu zitzaitan odolki  
muthurra...  
1016 Irulegiko arnoak etcherat heltzen, Taffalakoak bidean  
uzten...  
1017 Jan phorru, gero dolu...  
1018 Jaten den lekuan aza eta arbi, ez daiteke izan etche  
gibela garbi...  
1019 Jaunen jaunak badire...  
1020 Kargua, karga...  
1021 Mando handiak arbalda handia...  
1022 Menturatu etzenak etzikan atzeman-phartza, bai aldiz  
menturatu zenak hartza...  
1023 Onbor su, bon su : chichtapur su, kaka su...  
1024 Salvatore, baba lore...  
1025 Ttipi baniz, handi baniz, Maiatzean ernari niz, Ekhai-  
nean erdiren niz, Uztailean bilduren niz...

J. ELISSALDE.





